

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorreko San Jorge hiri antolamenduko plan bereziko AI-2 jarduketa integratuaren hirigintzako jarduketa programari

Alkatearen 2021eko abenduaren 15eko Dekretu baten bidez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorreko San Jorge hiri antolamenduko plan bereziko AI-2 jarduketa integratuaren hirigintzako jarduketa programari, Juanjo Erdocia Ulayarrak Proyectos y Construcciones Legarbe SLren izenean eskatuta.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hogeitun egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edonork aukera izan dezan egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko, bat etorritik Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 156. artikuluan xedatutakoarekin. Hauek dira programa horretan jasotako funtsezko elementuak:

Hirigintzako jarduketa programa, agiri hauek osatua:

1. Xedea eta eremua.

2. Hirigintza edukia:

– Jarduketa eremuaren azalera: 528,00 metro koadro.

– Eraikuntza aprobetxamendu berria: 288,02 metro koadro bizitegitarako erabilera duen sabaia.

– Etxebizitza kopurua, gehienez: 4 unitate.

3. Hirigintzako eduki teknikoa.

4. Planoak.

Hirigintzako jarduketa programaren alderdi nagusiak:

– Ekimena eta sustapena: Juanjo Erdocia Ulayar, Proyectos y Construcciones Legarbe SLren izenean.

– Hirigintzako jarduketa programaren eremua: Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorreko San Jorge hiri antolamenduko plan bereziko AI-2 jarduketa integratua.

– Aurreikusitako jarduketa mota: pribatua.

– Jarduketa sistema: ituntze sistema.

– Zein jarduketa integraturik eragiten dion: Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorreko San Jorge hiri antolamenduko plan bereziko AI-2 jarduketa integratua.

– Epeak:

• Birpartzelazio proposamena aurkezteko: bi urte, San Jorge 5-HIEaren hiri antolamendurako plan berezia onesten denetik.

• Ituntze batzarra eratzeko: ez da beharrezkoa izango, jarduketaren azalera osoa jabe bakar batena delako.

• Urbanizazio obrak gauzatzeko: bi urte, San Jorge 5-HIEaren hiri antolamendurako plan berezia aurkezten denetik.

- Udalari aprobetxamenduak lagatzeko: birpartzelazio proiektua behin betiko onesten denean.
- Ondoriozko orubeak eraikitzeko: gehienez zortzi urte, egikaritze unitatea lizentzia jasotzeko moduan dagoenetik.
 - Urbanizazioaren aurrekontua, guztira: 6.515,70 euro.

Agurain, 2021eko abenduaren 16a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES